GAU BELTZA

Gau luzea... gau illuna... gau goibela... ez ote du argituko?

Otz-ikaraz umea... negarrez zotinka ama... dardaraz aita... larri senideak... kezkati adixkide eta ezagunak... buru-makur erritarrak...

Zer gertatuko ote?

Bizirik aterako ote da? Betirako gaixo geldituko ote da? Sendatuko ote ala ilko? Kezka larri eta samiñak!

Zorigaiztoko gau beltz ontan zeiñen itz pozgarriak Batikano II'aren itzak: "Gaurko gizonen, batez ere behartsuen eta miñez daudenen poz eta usteak, atsekabe eta larriak Kristoren jarraitzailleen poz eta uste, atsekabe eta larri biurtzen dira".

Itz auek S. Pauloren beste itz auek gogorazten dizkigute: "Negarrez daudenekin negar, pozez daudenekin irripar".

Baiña esateko polítak. Zaillak, ordea, betetzeko.

Eta onela jokatu nahi luketen apaizen jokabidea neurriz gaiñezkakoa eta kaltegarria omen da. Zapaldutako giza-eskubideen alde jeikitzea gerra santu baten antzeko beste zapalketa bat omen da. Ala idatzi da, noki, oraindik orain.

Ez dute ala ute beste zenbait tokitako gotzaiek: "Azpi-jana, nahasketa eta komunismo-lana deitzen diote agintariek eta lur-jabe aundiak zenbaitsuen giza-jasokuntza-lanari".

Bidegabekeriak egiten dituzte, polizikoak, ikara eta larria jarriaz etxeetan sartzen diranean, espetxeratzen dituztenean, barruan artu-eman guziak mozten dizkiotenean, beren buruak garbitzeko egokieran ukatzen dizkietenean, beren barruko berri jakiteagatik zigortzen dituztenean".

"Zigortuak izan diranak berak aitortu dute. Ez ahal da deadar au Erri Batuetako jauregiraiño iritxi? Ba-dago ONU'ren barruan giza-eskubideen aldeko batzordea. Zergatik ez du bere gain artzen militarrespean egiten diran astakeri guzien berri jakitea?".

Au da garbi itzegitea. Au da behartsuen eta miñez daudenen alde jartzea. Eta ez gauzak garbi jarri gabe "giltzaperatu guzientzat biotz-beratasuna eta errukia Gobernuari eskatzea".

Ala dio Azagra gotzaiak: "Politikalari bezela illa izan zan Kristo. Ez dezagun ahaztu. Min emango die goikoei, nunnahi eta noiznahi, Ebanjelioak barruan daraman aldaketa eta iraultza-eragiñak. Ebanjelioak bizitaz lotzen badu, baita politika bizitza ere lotzen du. Sermoiak askotan ikutu behar ditu politika-gaiak. Zer esanik ez erritarrak menderatzen eta neurtzen dituan egoeran".

"Pekatu astuna egitea da zapalketa eta bidegabekeriak ez astintzea eta ez salatzea". Jakiña oiturazko eta elizkizun utsezko erlijiokera batetik ez dute atera nahi askok. Oiek ez dute beinere ulertuko eta jardungo dira. Zer egingo diegu, bada!".

Urre - eztaiak Landan

Xehetasun txiki bat, egia da; gertakari xume bat. Baina pentsakor utzi nau.

Baionako «Basque-Eclair» egunkariak, fotoa eta guzti, «Ninou»-ko Choy Senar-emaztearen urre-eztaiak aipatu ditu. Eta «J. P.» sinatu duen albistariak hau dio: «Il fallait bien le préciser, cette famille Choy de Lanne, habite la «maison de Ninou». Ainsi l'on peut s'y retrouver, car des familles Choy, il y en a *d'autres dans le village*». Alegia: zein etxetako Choy-tarrak diren zehatz esateko, haien etxea ere aipatu behar da: «Ninou» etxekoak, beraz.

Eta «J. P.»k hau erantsi: «C'est un peu comme au Pays Basque: c'est le nom de la maison qui permet de différencier les Etcheverry ou les Sallagoïty». Alegia, Euskal Herrian *bezalatsu da*: etxearen bidez berezten dira Etxeberri-tarrak eta Salagoiti-tarrak.

Eta «J. P.»k ekiten: «C'est ici que Pierre Choy a reçu son éponse, née Victoire Epphère, du quartier Gastillondou». Hau da: hementxe hartu zuen emaztetzat Victoire Epherre, Gaztillondu hauzokoa.

Horra hor gertakaria. Deusik ez itxuraz. Ba dakit. Funtsean, ordea, argi-iturri hutsa.

Zeren-eta Landa (frantsesez Lanne) Zuberoatik Ekialdera bait dago, Zarraltzune (Barlanès frantsesez) ibarreko atarian, Baretus delakoaren eskualdean; eta Biarnon, beraz, ohiko Euskal Herritik at.

Eta horra hor gure begien aurrean, euskeraren galera eta administrazio-kutsua jatorrizko egiari nagusitzen ari. «J. P.» delakoak ez daki nunbait (eta irakurleak gutxiago!) Landan euskaldun asko dagoela oraindik ere; eta Biarnoko herri bat izanagatik ere, euskera izan dela bertako hizkuntza nagusia XIX-gn. mendean bertan.

Bertakoek, ordea, euskera ezaguturik ere, baztertu edo izkutatu *egin dute aspaldidanik* (eta orain inoiz baino areago), lehen kaskoina, eta orain frantsesa, erakusten zutela; euskera etxeko Zaharrekiko mintzaira lotsagarritzat gordeaz. Honelakorik aipatu digu Tournier-ek Larango euskaldunez idaztean; eta besterik ere aipa laiteke aisa Biarnora jo beharrik gabe.

Landatarrek, hortaz, ez dute deitura-kontutan *euskaldunek bezala* egiten», berak ere jatorriz euskaldunak bait dira! Epherre deitura Kanpotik etorria izanagatik ere, nola azal habere hauzo horretako «Gaztillondo» delakoa?

Bestetan ere aipatua dut honi buruzkorik, eta ez dut gauza bera birresango. Berririk bai, ordea. Haritxelharrek berriki dokumentu-bidez erakutsi *duenez* (Etxahuni buruzko tesian) Aste Santuko Sermoiak *euskeraz ere* egiten ziren Landan, eta Biarnoko beste herritan Baretusko eskualdean, Etxahunen garaian; alegia, orain dela ehunen bat urte.

Orain dela aste batzuk, bestalde, Ekialdeko euskal muga honetaz Zuberoako baserritar jator batekin mintzo nintzelarik, hauxe esan zidan: ez Landan bakarrik, baina Inhasi-n batez ere (frantsesez Féas, Biarnon ere), Landatik hamar bat kilometro Ekialderago, baserritarretan «hirutarik bigak bederen» euskeraz hitzegiten dutela gaur bertan. Ez dakit hau egia denetz, herri koxkor horien berri (eta baserri-barneko berri batez ere) jakiten oso erraza ez delako.

Ez da, hortaz, Eskiula Biarnoko *bakarra*. Eta *Jaka-aldean* eta bestetan aspaldian «lengua latente» delakoa zer ote zaitekean somatzen dugu. Ezen ez dakit Biarnoko Eskiularen euskal jatortasunaz zer pentsa, dokumentoei dagokienez; baina Barkoxen udara honetantxe frogatua dudanez, eskiulatarrek «*biarnes euskalduntzat*» daukate beren burua. Hots, jakina denez, zuberotar etorleek ekarri omen zuten euskera *bazter honetara* XIV *edo* XV-garren mendean (Ikus Goihenetxe). Toponimia Biarno Garai guzian hein batean bederen euskalduna izanik, ordea, ez ote da egiago eskualde hartan oraindik ere erabiltzen zen euskera *azkartu* egin zutela zuberotar etorleek? Zergatik ukatuko *Saroïhandyren baiespenak*?

Era berean, eta hildo beretik, *Landa ez dago Zuberoan; eta* euskera «Kanpotik» Kutsatu zaiola pensatzea atseginago zaio zenbaiti: Landa Biarno da, erdalduna, eta Kito.

Zertan du onanrria, honi gagozkiola, Pedro Irizarren aspaldiko eskaera batek? (Ikus «Anuario de Filología J. de Urquijo», 1955). Icharo oker ote dago? Euskaltzale hon*ek Jeruntze*-ko *euskalkia* galdu auretik aztertzea proposatu zuen. Hots Jeruntze, frantsesez Géronce, Biarnon dago, Ospitalepiatik 6 bat kilometrotara Ekialdera.

Beste etsemplu bat datorkit gogora, guztiz plegu berekoa. Corde l'Abbaye-koa (gaur «Landes» departamenduko parte, jakina denez), eta gaur euskeraz mintzatzen den barrutitik 12 bat kilometrotara.

Laster agertuko den tesi batetan Goihenetxek argitzen *duenez*, XIV-gn. mendean Sordua-ko etxe askok euskal izena zuen; bertakoek, euskal ohiturari jarraituz, deitura euskaldunak agertzen bait dituzte: Anduesse, Echegaray, Beyries, Arasape, Ustusi, eta abar. Eta, Kontuz: hauek guziak kanpotarrak izanagatik ere (Zergatik?), nola Konpreni garai hartako euskal toponimia (gaur arte hala-nola iraundua): Urdassen (Urdaix, Soruan-n), Urist (Orist, Peyrehoraden), Usquain...

«Joanak joan» diote batzuek.

Bai. On da, ordea, eta oso gogoan hartzekoa, euskaldun bazter horiek nola erdaldundu diren; eta nola, *urteen buruan*, guhauri ere azkenean, administrazio-mugak bide, harrigarri eta arrotz gertatzen zaizkigun osoki. Nola, euskera galduz, Euskal Herritik arras berezi diren.

Hau guzia gogorazi dit Shoy-ren urre-eztaiak.

Harrigarria ahal da?

LARRESORO

Eskutitz bat Aita Santuari

Oraingo au Vietnamgo kristau batzuek zuzendu diote seigarren Paulori. «Lettre des Vietnamiens chretiens» deritza. (Kristau Vietnamdarren eskutitza). Bertan, Vietnamgo Aberrian, Amerikarrak darabilten politika eta Eleiz Agintari batzuen jokabidea astindu eta dantzatzen da. M. Ngo Cong, katoliko diputaduaren bitartez jaso zuan eskutitza Aita Santuak, aurtengo abuztuan. Eskutitz onetan, etxe ta errietan gerrateak ekarri dituan kalte izugarriak baiño geiago aipatzen dira Moral eta espiritu aldetik Amerikarrek Vietnamgo aberriari egiñ dioten ondamendi beldurgarria.

«Biziera, zibilizazio berri bat ekarri digute Amerikarrek: Dolar diruaren zibilizazioa. Guzia dezakezu dolarrarekin; baita zeruko ateak ireki ere. Dezakeguna irabaztea, bearrezkoa zaigu beraz. Ortarako bide guziak on. Amerikarren artean egindako zenbaketa. Estadistikak digunez, lau emakumetatik bat ema-galdu dezu. «Vietnamgo gerratea beraz, «Erriaren erailketa (genocidio) da.

«Ez bakarrik gerrate onetan errukabeko askok bizia galtzen dutelako, erri baten balio aundiak beren sustraitik eta ondatzen ari diralako»« baizik. Beraz, dio eskutitzak, «Ez arma indarrez, baizik aberriko seme guziak elkartuaz, egiñ bear da Vietnamgo pakea».

Indarrezko pakerik ez, baiña senide arteko pakea egiñ nai du Aita Santuak. Orrelako pakerik ez degu nai, diote Gobernamentuaren Zuzendariak eta Eliza Katolikoaren agintari batzuek: Emen gertatzen danaren naiko argitasun gabe dago Aita Santua... Bere inguruko gizonak ez dira fidatzekoak... Ez arritu behar maitasunezko pakea jarri nai dutenak ikaragarrizko eraso aldiak (persekuzioak) eraman bearrean arkitzen badira. Gaizki esaka, iraiñ ikaragarriek jaso dituzte Gazte Katolikoen zortzi apez kontzejalarik. Zergatik...? «BIDEGABEZKO ESPETXERATZEAK ETA MINKETA-TORTURAK GAITZETSI ETA KONDENA DITUZTELAKO». «Gerratearen bukaera iristeko aalegiñak egiten dituztenen aurka daude Eliz agintariak, naiz eta aalegiñ oiek, zuregandik, Aita Santua, eldutakoak badira ere. Pake beldur baitira Eliz-agintariak». Pakearekin «orain arteko erraztasun ta Pribilejioak ez bailituzteke izango». «Ezin ditezko Eleiz ederrak ugaritu. Eliza eta Erromes leku batzuek diruketa aundia kostatzen dira; Inguruko etxe kaskar eta txabolak bai lotsagarri Eliza dotore oien aurrean ... Ta... Zer esan genezake Elizak bere gain dauzkan Hotel apain, irabazpide-negozio, Diru etxe ta Bankuengatik...?

USTELDUTAKO GOBERNU-REJIMEN ONETAN GUZIA EROSI DITEKE

Vietnandarren eskutitz onetan Aita Santuak itzok irakurri aal izan ditu: «Guziak dakitena da Probintzietako agintarien etorkizuna erriko apaizen eskuetan arkitzen dala; edonork daki gure erria gerratean eta oso atzeratu izan arren, bertako apaiz askok errege-antzeko bizitza daramatela».

Ta eskutitzak geroxeago dio: «ELIZ AGINTARI BATZUEK ELIZAREN ETORKIZUNA REJIMENAREKIN BATU TA UZTARTZEN DUTE. DENEN ARTEAN KATOLIKOENA DERITZAN REJIMEN AU, USTELDUENA, GALDUENA ETA ERRIARENTZAT NAZKAGARRIENA DA».

Usteldutako Rejimena, bai, Vietnango Gobernamentuarena. Neskatxa gazteen arrapaketa (Rapto) egun argiz egiten da Saigonen. Leenbizi Banconga eramaten dituzte neskatxa auek eta gero zuzen zuzen Estados Unidosa.

Guzia eros liteke diruaz. Thang-Tien, asteroko Rebista dezu; bere zuzentzaillea Phan Van Tham apeza. Phu-Bhin-go Arziprestazgoko katolikoen jokabidea astindu eta salatzen zuan asteroko Errebista orrek. Erri-etan izan bear zuten bost agintari aukeratu eta aien alde jokatzeko eginkizuna artzen zuten Arziprestazgoko katoliko oiek; ordaiñetan, errialde aietako apaizei, milloi bat piastra (bertako dirua) eman bearrean gelditzen ziran agintari aiek. Guzia erosi zenezake an diruaz. Beartsuenek berrogei ta amar milla piastra ordaindu bear dituzte arrisku tokietatik urrun beren soldadukako zerbitzua egiteko.

ELIZA ISILLIK

Milla bederatzireun eta irurogei ta zortzigarren urtean, My-Lai (Song-My-n) Amerikar soldaduak bost eun erriko jende zibil il zituzten.

Orain arte ordea Eliza isillik. Ikasle, alargun eta gerlan zauritueк, giza pertsona baten antzera bizitzeko eskubidea eskatzen dute. Bitartean, Xtoren Eliza isillik dago Vietnam-en. GORGOKERIAK, GORPUTZ MINKETA-TORTU-rak EGUNERO GERTATZEN DIRA GURE ARTEAN POLIZI ETXEETAN. ELIZA BITARTEAN ISILLIK. Joan zan ekainean, Amerikar Egazkiñek eun itsasontzi ondoratu zituzten, eunen bat arrantzalek bizia galtzen zutelarik, Eliza ordea isillik.

Zergatik isillik Eliza...? Vietnamgo Gobernamentu ta Rejimenaren oiñarri ta euskarri Eliza baita, eta Eliza mintzatuko balitz, ankaz gora lur jota bailitzake Vietnamgo Gobernamentua bere Rejimenarekin. Kristoren Eliza bakarrik da Vietnamgo Rejimenari eusten diona. Kristoren Elizari esker Amerikarrek beren oiñak jarrita dauzkate gure errian. Orregatik isillik eta mutu Eliza.

Azkenik Eskutitz orretan, Aita Santuari, au eskatzen diote; arren Vietnamgo Eleizak, joka dezala Vietnamgo errian, Ebanjelioak agintzen duan arabera; eta Aita Santuarentzat bereziki beste itz auek: «Emengo berri emateko M. Cabot Lotge daukazu zure alboan eta ori oker aundi bat da zure aldetik. Lau zatitan biltzen dira gerla egilleak eta bati bakarrik entzuten diozu».

Jacques Decornoy'k, Le Monde, Parisko Periodikuan, joandako illaren ogei-ta-lauetan «Dans Une Lettre au Pape» izeneko irakurgaia argitaratu zuan.

Bertatik jaso ditut emengo pentzakizun guztiak. Zer gertatzen ote da ain urruti dagoan Vietnam orretan...? Nik ziur ez dakit, baiña Le Mondek emandako berriak etzaizkit ain arrigarri.

AROSTEGITAR JOKIN

zeruko ARGIA

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Argitaratzailea:

Nafarroako-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxinoak. (Mayor, 50-1.° - Burlada Pamplona).

DONOSTIAN:

Oquendo, 22 - Tel. 26666.